



berdindu! eskola

LGBT diskriminazio arazoak edo Sexu Aniztasuna lantzeko interesa daukaten ikastetxeentzako aholkularitza zerbitzu espezifikoa.

berdindu!



EUSKO JAURLARITZA
GOBIERNO VASCO

Enplegu eta Gizarte
Politiketako Saila

berdindu!



EUSKO JAURLARITZA
GOBIERNO VASCO

Enplegu eta Gizarte
Politiketako Saila

Berdindu! Pertsona lesbiana, gay, bisexual eta transexualen arretarako euskal zerbitzua da, Familia eta Komunitate Garapenerako Zuzendaritzaren baitan.

HELBURUAK:

1. Orientazio afektibo-sexual eta genero identitate ezberdinen normalkuntzan aurrera egitea eta homofobia, lesbofobia eta transfobiagatiko diskriminazioarekin amaitzea.
2. Euskal politika publikoetan eta gizarteari zuzendutako zerbitzuetan LGTB ikuspegia lortzea.
3. LGTB pertsonak eta beraien ingurukoak informatzea eta laguntzea ahalik eta kalte pertsonal, familiar eta sozial txikiena izan dezaten.

AURREKARIAK

Legez besteko proposamena Eusko Jaurlaritzan 2000 urtean.

Lesbiana, gay, bisexual eta transexualentzako informazio zerbitzu bat sustatzeko adierazpena.

Jaurlaritzaren Kontseiluaren Erabakia 15/10/2002

- ♦ BERDINDU! Zerbitzua martxan jartzea:
 - ✓ LGBT kolektiboarentzako arreta eta aholkularitza.
 - ✓ Berdintasunaren aldeko eta diskriminazioaren kontrako politiken diseinua.

2011-2013-rako Eusko Jaurlaritzaren sexu-orientazioagatiko eta genero-identitateagatiko diskriminazioaren aurkako 1. LAN PLANA (2011-ko ekainean)

- ♦ LGBT euskal taldeekin adostua eta Jaurlaritzaren politika publikoetan Sexu Aniztasunaren kudeaketa zeharka lantzeko proposamenekin.
- ♦ 66 proposamen biltzen dira, 19 hezkuntzaren eremuan.

Homofobia, lesbofobia eta transfobia ikastetxetan

- ♦ Gaur egun BERDINDU! -k sexu-orientazio eta genero-identitateagatiko jasarpen kasu kopuru adierazgarria antzematen du aholkularitza eta errekurtsoen beharra dutenak.



berdindu! eskola

Berdindu eskola! Ikastetxeei zuzendutako zerbitzu espezifiko eta aditua da, tokian-tokiko arreta eta aholkularitza eskainiko duena Berritzegunekin koordinatuta.

Zer eskaintzen du Berdindu Eskolak?

- ◆ Lehenengo arreta eta orientazioa LGTB diskriminazio problematikak edota bullying homofoboa, lesbofoboa eta transfoboa antzematen dituzten ikastetxeekin.
- ◆ Babes teknikoa eta neurria egindako oinarrizko formakuntza, Sexu Aniztasuna haien Plan Kurrikularrean integratzeko interesa daukaten ikastetxeentzat.



Zerbitzua nori dagoen zuzenduta:

- ◆ Lehen hezkuntzako ikastetxeak eta Bigarren hezkuntzako Institutuak.
- ◆ Orientatzaileak, kontsultoreak, zuzendaritza taldeak eta irakasleria orokorrean.


Helburuak:

- ◆ **Aholkua**, jarraibideak eta informazioa ematea sexu-orientazio, identitate edo bere generoaren espresioagatiko diskriminazioa edo jazarpena pairatzen ari diren kasuetan ikasleriaren babesa hobetzeko.
- ◆ **Formakuntza** oinarritzkoa eta neurrira eginda eskaintzea, zentroan bertan emateko eta Sexu Aniztasunaren perspektiba modu praktikoan txertatzeko bideratua. Egoera kontutan hartuta “lantalde eragilea” sustatuko da errekurtsioak eta jarraibideak emanez.
- ◆ **Sentsibilizatzea** eta ikastetxeen interesa piztea Sexu Aniztasuna ikustarazteko, normaltzeko eta lantzeko behararen aurrean. Honek elkarbizitza hobetzen eta norberaren garapen pertsonala askea izaten lagunduko du arrisku giroak gutxitzearekin batera.

FORMATUAK

A – Lehenengo arreta eta aholkularitza saioa:

- ◆ Ikastetxera bisita egiten da eskaerak jasotzeko eta egoeraren azterketa egiteko kontsultore, orientatzaile, zuzendaritza taldea edota inplikaturako tutoreekin batera. Posible bada baita Berritzeguneko elkarbizitza aholkulariarekin ere bai.
- ◆ BERDINDU! zerbitzuaren inguruko informazioa ematen da eta baita Gobernuaren errekurtsio eskuragarri guztien ingurukoa ere; Berdindu Pertsonak, Berdindu Familiak...
- ◆ Ikastetxearen zailtasunen eta beharren analisia egiten da.
- ◆ Formakuntza eskaintzaren inguruko informazioa ematen da: BG-ko mintegiak, GARATU ikastaroak eta Berdindu Eskolako tokian-tokiko formakuntza.
- ◆ Eskuragarri dauden material eta errekurtsio pedagogikoen selekzio bat gomendatzen da.
- ◆ Babes teknikoa emateari eta jarraipena egiteari atea zabalik usten diogu, zailtasunak kudeatzeko eta Sexu Aniztasunaren perspektiba zentroan integratzeko laguntza behar dutenerako.



FORMATUAK

B – Berdindu eskolako tokian-tokiko oinarrizko formakuntza (4-8 ordu bitartean)

- ◆ Parte-hartzaile kopurua: 4-15 pertsona bitartean. BERDINDU!-ko informazioa emango da. Zentroan bertan “lantalde eragilea” sustatzeko asmoa egongo da.
- ◆ Irakasleriari oinarrizko formakuntza emango zaie hauek sentsibilizatzeko eta beraien Sexu Aniztasunarekiko begirada zabaltzeko helburuarekin.
- ◆ Jarraibideak eta gakoak aztertuko dira gela barruan gaiaren lanketa errazteko eta material eta errekurtso pedagogikoen selekzio bat eskainiko da.
- ◆ 4 ordutatik aurrera adibide eta aspektu praktikoagoetan sakontzen da eta elkarrekin lan plan txikia diseinatzen da elkarbizitza planaren barruan modu eraginkor eta egonkorrean txertatzeko.
- ◆ Ebaluazioa egiten da praktika onak eta ikasitako lezioak jasotzen zerbitzua eta formakuntza hobetzeko.



Hauxe da momentua!

Berdindu! eta Berritzeguneak

Koordinazioa eta elkarlana.

- ◆ “*La Diversidad Sexual e Identidad de género en las aulas ¿Qué sabemos? ¿Cómo actuamos?*” mintegian eta VI Elkarbizitza Jardunaldietan sortutako ezagutza eta sinergiak aprobetxatzeko beharra dago.

Horretaz gain garrantzitsua dugu hurrengoak sustatzea:

- ◆ BG-ko 3 mintegi berriak (1 lurralde bakoitzeko – 40 ordu)
- ◆ GARATU ikastaroak 13/14 (2 lurralde bakoitzeko – 15-20 ordu)
- ◆ **Pausuz Pausu ikasten:** Berdindu Eskolaren lehenengo etapa honetan informazio, esperientzia eta ikasgai oso baliotsuak jaso ahal izango ditugu ikastetxeen errealitateak ezagutzeko eta hezkuntza eremuan LGBT politika zuzenagoak diseinatzeko.

Berritzeguneekin elkarlana oso garrantzitsua izango da zerbitzua ezagutarazteko, eskaerak jasotzeko eta gaiaren inguruko beharrak eta interesak detektatzeko.



Berdindu Eskola!

Informazioa eta kontaktua:

Alberto López --> 647 976 001

Nahia Rojo --> 653 721 725

Sexologiako profesionalak lehen eta bigarren hezkuntzako 60 ikastetxe baino gehiagotan esperientziadunak Sexu heziketa, Sexu aniztasuna eta Genero berdintasuneko programak irakasten.

guztiok.info@gmail.com

berdindu!



EUSKO JAURLARITZA
GOBIERNO VASCO

Enplegu eta Gizarte
Politiketako Saila